Otsailaren 27 eta 28an

Zubietan ez dugu halako sistemarik, baina botoa badugunez, argi adierazi behar dugu errauskailurik ez dugula behar; horregatik, Usurbilgo atez atekoaren alde bozkatuko dugu.

Ez Diputazioak, ez Donostiako udalak ez digute aukerarik ematen gure iritzia azaltzeko, baina **Usurbilgo kontsulta erabiliko dugu zubietarrok, baita Donostia partekook ere**, gure iritzia ozen adierazteko. Herri-Batzarrak emandako aukera aprobetxatuz, **Alamandegiko udal aretoan emango dugu bozka**.

Borroka zailean ari gara errauskailuaren aurka, baina ez dugu esperantzarik galdu. Zenbaitek espero zuen etsi eta amore emango genuela, baina, bai zera! Ekinean ari gara, bide zuzenetik, eta oraindik ez da ezer erabaki. Gauza baldin bagara atez atekoa indartzeko eta Gipuzkoako beste herri eta eskualdeetara zabaltzeko, ataka latzean jarriko ditugu erraustegiaren aldekoak.

Eta hori da gure erronka. Aukera bakarra dugu atzetik datozkigun Hernaniren eta Oiartzunen eredu eta bultzatzaile izateko, Euskal Herrian osasuntsu bizi nahi dugula eta honetan aitzindari izateaz harro gaudela erakusteko.

Gure partehartzea nahitaezkoa da atez atekoaren aurka eta errauskailuaren alde daudenei apustua irabazteko

Hori dela eta, eman zure botoa 27 edo 28an ***ATEZ ATE aukeraren alde***.

Oraindik garaiz gaude!

Entzun dezatela gure oihua:

Atez atekoari BAI = Erraustegiari EZ

Zubietan ere, ATEZ ATE DUDIPE!

ATEZ ATE! dudipe

Zubieta lantzen

Herria erraustegirik ez!